



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SEXU ASKATASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN

Ekainaren 28an, Sexu Askatasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Opakizun egun horretan, sexu portaerak eta joerak libreki aukeratzeko dugun eskubidea aldarrikatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta, bereziki, aitoren bat egin nahi dio gayen, transexualen, transgeneroen, bisexualen eta queer-en mugimenduari, mugimendu horrek jakin baitu sexu eskubideen alde borrokatzen eta gizarte multzoak sexuari, generoari eta sexu ohiturei buruz dituen estereotipoen kontra egiten.

Jaio aurretik ere, gorputz bakoitzak bere etiketa du. Hala, sexu organoek aginduta, edo gara *ar/gizonezko* edo gara *eme/emakumezko*, eta zerizan horietako bakoitzak portaera jakin bat esleitzen digu, edo maskulinoa edo femeninoa. Alabaina, gizarte-rol arbitrario, dikotomiko eta hierarkikoak besterik ez dira zerizan horiek. Dikotomikoak, zeren aurkako identitateak balira bezala aurkezten baitira (maskulinoa ez da femeninoa, eta alderantziz) eta, gainera osagarritasunaren irudi faltsua ematen baitute (maitasun erromantikoa, heterosexualitatea). Eta hierarkikoak, zeren maskulino izendatua gainekotzat jotzen baita femenino izendatua baino (izan ere, adierazten denez, femeninoaren kontrakoa da maskulinoa, eta maskulinoaren kontrako femeninoa).

Bai sexu/genero bati, bai besteari, portaera heterosexualaren araua ezartzen zaio, modu berean.

Gizarte patriarkalaren paradigmak behar du, mantendu eta birsortu dadin, gorputzek sexu-genero-sexualitatearen eskema lineal hau jarraitzea: *arra-gizonezkoa-maskulinoa-heterosexuala*; *emea-emakumezkoa-femeninoa-heterosexuala*). Horretarako, tresna ugariz baliatzen da; hainbat indarkeria motez, besteak beste.

Intersex gorputzak, gorputz transgeneroak, homosexualak eta lesbikoak, tradizionalki izendatu zaizkigun genero eskemak hausten dituzten emakume eta gizonak... gizarteko errealitate horiek beti aurre egin diote *normaltasunaren* parametro bilakatu den *sexua/generoa/sexualitatea* eskema aldebakarreko eta mugiezinari.

Bere egitura biologikoak eta sexu portaerak gidatuta gorputz batek eskema horri aurre egiten badio, indarkeria matxista paira dezake, indarkeria matxista kontrol tresna baita,



sexua/generoa/sexualitatea eskema birsortuko dela ziurtatzeko. Transfobia, lesbofobia eta homofobia ere biolentzia matxistaren beste modu batzuk dira. Biolentzia arautuak dira, egunerokotasunean identifikatzeko zailak. Eskolako jazarpenak islatzen duen errealitatea da auzi honen adibiderik argienetako bat.<sup>1</sup> Estatu Espainolean 2012ko urtean egin zen azterketa batean, zera agertzen da: LGTBQ gazteen % 56k indarkeria matxista pairatu zuela bere sexu joerarengatik (% 65 mutilen kasuan). Lagin osotik % 17k bere buruz beste egitekotan ibili zen.

Nahiz eta aitortu behar den eskubide asko irabazi ditugula eta asko aurreratu dugula sexu askatasunaren aldeko mugimenduei esker, datu horiek agerian uzten dute bide luzea egiteko daukagula oraindik.

Sexua, generoa eta sexualitatea norberaren identitatearen osagaiak dira; erabateko askatasunez aukeratu beharrekoak, beraz. Gizartean portaera jakin batzuk behartuz gero, indarturik ateratzen dira maskulino eta femenino izatearen iritzi estereotiko eta sexistak, indarturik ateratzen diren bezala parametro horietan sartzen ez direnenganako gorrotoa eta indarkeria.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Transfobia, lesbofobia eta homofobia hartzea indarkeria matxistaren forma eta adierazpentzat.
- Jakintzan eta esperientzian irabaztea, indarkeria matxistaren aurkako foru politika bat diseina dezagun, helburutzat hartuta indarkeria hori prebenitzea eta arretako baliabide egokiak eskuratzea.
- Babestea sexu askatasunen alde lan egiten duten kolektibo eta elkarteak, eta, bereziki, LGTBQ kolektiboak eta elkarte feministak

Azkenik, Lurraldeko herritarrak bultzatzen ditugu beren identitate eta dibertsitate sexualak libreki bizitzera, eta gure babesa, elkartasuna eta miresmena adierazi nahi dizkiegu ekainaren 28a sexu askatasunaren nazioarteko eguna izendatzeko lanean ibili diren guztiei.

---

<sup>1</sup> Estudio realizado por FELGTB y COGAM del 2012 <http://www.felgtb.org/rs/1584/d112d6ad-54ec-438b-9358-4483f9e98868/91c/filename>